


2021eko Aurrekontu Irekiak protokoloa

2021



[2020KO AZAROA]



1. FASEA. Aurrekontu Irekiak kudeatzeko lantaldea eratzea Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordearen barruan: **2020ko azaroa**

Aurrekontu Irekiak kudeatzeko lantaldea eratuko da, Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordearen barruan. Lantalde hori honako hauek osatuko dute:

1. Mikel Pagola Tolosa, Herritarren Partaidetzarako zuzendari nagusia.
2. José Enrique Corchón Álvarez, Finantza eta Aurrekontuetako zuzendari nagusia.
3. Mikel Uribechebarria Barrena, Kudeaketako eta Plangintzako zuzendari nagusia.
4. Sebastián Zurutuza Mujika, Kudeaketa Estrategiako zuzendari nagusia.
5. Elene Arrazola, Komunikazioko zuzendari nagusia.
6. Goizeder Mancuotas Rueda, Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketarako zuzendari nagusia.
7. Maria Jose Telleria Etxeberria, Kultura, Lankidetzak, Gazteria eta Kiroletako zuzendari nagusia.
8. Jon Ander Azpiroz Otegi, Landa Udalerrien Garapeneko zuzendari nagusia.
9. Miguel Angel Crespo Rico, Lurralde Antolaketako zuzendari nagusia.
10. Txaro Rodrigo Montalvo, Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretarako zuzendari nagusia.
11. Mónica Pedreira Lanchas, Ingurumeneko zuzendari nagusia.
12. Diputatu Nagusiaren Kabinetea: Diputatu Nagusiaren aholkularia
13. Aurrekontu Irekien kudeaketarekin lotura estuagoa eta zuzenagoa duten zuzendaritza eta organoetako zerbitzuburuak.

Funtzio hauek izango ditu:

1. Aurrekontu Irekiak prozesua egiteko aurreikusitako metodologia parte hartzailea kontrastatu eta baliozkotzea.
2. Aurrekontu Irekiak prozesuaren behin betiko metodologia parte hartzailea onartzea.
3. Aurrekontu Irekien esparruan gara daitezkeen proiektu guztiek bete behar dituzten baldintzak identifikatzea eta definitzea.
4. Aurrekontu Irekiak prozesuari lotutako komunikazioko estrategia integrala diseinatzea.
5. Topaketak behar bezala diseinatzeko kudeaketa eta koordinazio lanak egitea.
6. Aurrekontu Irekiak prozesuko zereginak gainbegiratzea eta hartutako neurrien eta egindako aurrerapenen berri ematea Departamentuen arteko Batzordeari.

2. FASEA. Aurrekontu Irekiak egiteko prozesuan herritarrek parte hartzeko protokoloa diseinatzea eta onartzea: **2020ko abendua.**

Herritarren partaidetzari buruzko azaroaren 12ko 5/2018 Foru Arauaren 17. artikulua ezartzen duenez, **Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeak** zehaztuko du noiz irekiko den herritarrek aurrekontuak egiteko prozesuan parte hartzeko prozesua. Behin prozesu hori noiz hasiko den zehaztuta, Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza Nagusiak (herritarren partaidetzaren arloan eskumena duen organoa da) **partaidetza prozesuaren protokoloa onetsiko du**, gehienez ere hilabeteko epean.

Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza Nagusiak, Herritarren partaidetzari buruzko azaroaren 12ko 5/2018 Foru Arauaren 26. artikuluan aurrekontuak egiteko orduan herritarrek parte hartzeko prozesuei buruz ezarritakoa oinarritzat hartuz, partaidetza aurrekontuen prozesua gauzatzeko protokolo bat diseinatuko du.

Protokolo hori **Aurrekontu Irekiak kudeatzeko lantaldeak** kontrastatu eta baliozkotuko du.

Behin Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeak Protokoloa onartuta, haren testu osoa **30 egun naturaleko epean** argitaratuko da partaidetzaren arloan eskumena duen organoaren egoitza elektronikoan, atarian edo webgunean, eta prozesua hasteko data ezarriko da. Gipuzkoako Foru Aldundiak egokitzen jotzen duen beste edozein tresna erabili ahal izango du irisgarritasunaren eta diskriminazio teknologikorik ezaren printzipioak bermatzeko.

Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza Nagusiak herritarren aldetik helarazten diren proposamenak aztertuko ditu, eta **txosten bat** egingo du jasotako proposamenak aztertzeko eta horiei erantzun arrazoitua emateko. Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea arduratuko da Aurrekontu Irekiak prozesua gauzatzeko aurreikusitako **behin betiko protokoloa** onartzeaz.

3. FASEA. Aurrekontu Irekiak 2020 prozesuan sar daitezkeen proiektu guztiek bete behar dituzten betekizunak identifikatzea eta definitzea: **2020ko abendua.**

Aurrekontu Irekiak kudeatzeko lantaldea arduratuko da Aurrekontu Irekien esparruan gara daitezkeen proiektu guztiek bete behar dituzten betekizunak identifikatzeaz eta definitzeaz.

Horretarako, **betekizun kuantitatiboak eta betekizun kualitatiboak** definitzeko lanaren oinarri gisa proposatzen dira.

✓ **Betekizun kuantitatiboak:**

- o Proiektuek bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa bermatu beharko dute, bai eta jasagarritasun ekonomikoa eta finantzarioa ere.

- o Ezin dira izan Gipuzkoako Foru Aldundiak dagoeneko garatzen dituen ekimenetan gastua handitzeari buruzko proposamenak.
- o Ezingo dute eragin diru sarrera publikoetan.
- o Herritarren proposamenaren balorazio ekonomikoak ez du gaindituko ezarritako gehieneko muga (185.000 euro).
- o Proposamenek ez diote erreferentziarik egingo erakunde publiko edo pribatuentzako dirulaguntzen edo laguntza ekonomikoen eskaerari.

✓ **Betekizun kualitatiboak:**


- o Kontuan hartuko dira COVID-19aren ondorio sozial eta ekonomikoak minimizatuko dituzten konponbide sortzaileak abian jartzen lagunduko duten proposamen berritzaile guztiak.
- o Foru erakundeak agertoki berriaren aurrean egokitzeko eta berritzeko duen gaitasuna maximizatzea eta Gipuzkoaren etorkizuneko proiektua indartzea helburu duten proposamenak.
- o Lurraldeak epe labur-ertainean gertatuko diren aldaketa sozioekonomikoen aurrean erantzuteko eta egokitzeko gaitasuna areagotzeko proposamenak.
- o Etorkizuna Eraikizen (Gipuzkoa Taldean) esparruan aurreikusitako erronkekin, zutabeekin, ardatzekin, proiektuekin eta lan metodologiekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Kudeaketa Plan Estrategikoan identifikatutako lehentasunezko helburuekin bat datozen proposamenak.
- o Ahalik eta zehatzenak izatea, ondoren balorazio tekniko eta ekonomikoa errazteko.
- o Interes publiko orokorrekoak izatea.
- o Foru Aldundiaren eskumenekoak izatea.
- o Gaur egun Gipuzkoako Foru Aldundiaren plangintza- edo egikaritze-fasean ez egotea.
- o 6 gai hauetako batean sailkatzeko modukoak izatea: enplegua eta aktibazio ekonomikoa; gizarte arloa; gazteria; adinekoak; kultura-hezkuntza arloa eta mugikortasun jasagarria.

4. FASEA. Aurrekontu Irekiak protokoloa Partaidetzarako Gizarte Kontseiluari aurkeztea: **2020ko abendua.**

Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza Nagusiak Aurrekontu Irekiak prozesua gauzatzeko aurreikusitako **behin betiko protokoloan** sartutako gai guztiak aurkeztuko dizkio Gizarte Kontseiluari, eta horren berri emango dio.

5. FASEA. Aurrekontu Irekiak prozesua baino lehen eta prozesuan zehar komunikazio estrategia bat diseinatu eta gauzatzea: **2020ko abendua - 2021eko azaroa.**

Aurrekontu Irekiak kudeatzeko lantaldeak komunikazio estrategia integral bat diseinatuko du, prozesu osoa komunikatzeko kontuan hartu behar diren alderdi



garrantzitsuenak identifikatu ahal izateko. Orientazio gisa, honako ekimen hauek har ditzake barnean:

- ✓ Informazio zehatza, erakundearen webgunean eta parte hartzeko atarian, grafiko erakargarriak, errazak eta erraz ulertzeko modukoak erabiliz.
- ✓ **Sare sozialen bidez kanpaina birala** egitea, dibulgazio materialak zabaltzeko.
- ✓ **Ekimenaren promozioa irratian iragarkiak eta/edo bideo/spot iragarkiak**, parte hartzera animatzeko eta herritarren iritzia foru aurrekontuetan aintzat hartzea ak egitean sartzea duen garrantzia azaltzeko.
- ✓ Ekimenak jasotzeko unean eta proiektuak hautatu ondoren partaidetza gauzatzeko beharrezkoa den informazioa jasoko duen **informazio liburuxka**.
- ✓ **Informazio karpa/modulu ibiltariak**, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan barrena ibiliko direnak, ekimen parte hartzaile honen izaera, dinamika, epeak eta irismena jakinarazteko.

6. FASEA. Herritarren proposamenak jasotzea: **2021eko urtarrila-otsaila.**

Herritarren proposamenak jasotzeko, fitxa edo formulario bat bete beharko da (paperean edo formatu digitalean), honako datu garrantzitsu hauekin:

Identifikazio datuak: Identifikazio datuak: izena, abizenak, NANA, generoa, jaioteguna, helbidea eta helbide elektronikoa.

Zein gairi dagokio?

Gaia markatzeko laukitxoak (bakarra markatu):

- ☐ Enplegua eta aktibazio ekonomikoa;
- ☐ Gizarte arloa;
- ☐ Gazteria;
- ☐ Adinekoak;
- ☐ Kultura-hezkuntza arloa;
- ☐ Mugikortasun iraunkorra.

Zein da zure proposamena Aurrekontu Irekiak 2021 programarako? Zer proposatu nahi duzu?

- ✓ Proposamenaren izena.
- ✓ Proposamenaren deskribapen laburra.

Herritarren proposamenak jasotzeko, hiru bide erabiliko dira:

1. **Formulario digitalaren bidez.** Herritarrek <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/partaidetza> domeinuan dagoen formulario digitalaren bidez helarazi ahal izango dituzte proposamenak, bai eta inprimatutako dokumentuetan emandako Qr kode baten bidez ere.

2. **Posta erabiliz.** Horretarako, lurraldeko helbide guztietara bidali den formularioa erabiliko da, frankeoa ordaindua duena.
3. **Topaketak.** Gutxienez 6 topaketa egingo dira formatu digitalean (topaketa bat, gutxienez, ezarritako arlo tematiko bakoitzeko: enplegua eta aktibazio ekonomikoa; gizarte eremua; gazteria; adinekoak; kultura-hezkuntza arloa eta mugikortasun jasangarria). Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza Nagusiak aldeztatu egiaztatu eta baliozkotutako dinamika bat izango du. Dinamika horretan, Aurrekontu Irekien esparruan aurreikusitako prozesuaren dinamika azaltzeaz gain, lankidetzan jardungo da proiektu proposamenak identifikatu eta definitzeko. Nolanahi ere, planteatutako proposamenak formulario digitalaren bidez bidaltzeko eskatuko da (xehetasun handiagoz landu ondoren).

Aurrekontu Irekiak kudeatzeko lantaldearen ardura izango da Topaketetan parte hartuko duten pertsonak, kolektiboak, erakundeak eta erakundeak identifikatzea eta hautatzea. Lantalde horrek erreferentziarako arlo tematikoetan eskumena duten zuzendaritzen eta departamentuen aholkularitza eta lankidetzak izango ditu.

Egokitzen eta interesgarritzen jotzen bada Aurrekontu Irekien lehen fase honetatik aurrera kaleko prozesua komunikatzea eta ikusaraztea, **informazio stand bat** instalatu ahal izango da 5-6 egunez jarraian, bi pertsonarekin, jendea ibiltzen diren Donostiako eremuetan.


Horrez gain, **errotuludun gela bat, totem bat edo erraz eramateko moduko antzeko zerbait** izateko aukera dago, non (aurrez aurreko arretarik gabe) Aurrekontu Irekien prozesuari buruzko informazio guztia jarriko den ikusgai, lurraldeko eskualdeetako herri nagusietan eta nolabaiteko garrantzia duten udalerrietan. Ekimena ezagutaraztea ahalbidetzen duen beste edozein komunikazio estrategia ere erabili ahal izango da horrekin batera edo horren ordez. Errotuludun gela edo totem horrek proposamenak jasotzeko postontzi bat ere izango du.

COVID-19ak eragindako osasun larrialdiak segurtasun neurri bereziak eta urrutizko soziala eskatzen baditu, norbera babesteko ekipamenduak erabiliko dira (segurtasun protokolo zorrotzari jarraituz), eta pertsonen segurtasuna bermatzeko behar diren neurriak hartuko dira. **Osasun larrialdiko egoerak hala eskatzen badu, osasun arriskuko egoerak sor ditzaketen jarduerak eten egingo dira.**

7. FASEA. Herritarren proposamenen bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa aztertzea: **2021eko otsaila-martxoa.**

Proposamenak iragazi eta sailkatu ondoren, horietan jorratutako gaietan eskumenak dituzten zuzendaritzetara bideratuko dira.

Aldundiko teknikariek aztertuko dute jasotako proposamenek betetzen ote dituzten betekizun kualitatiboak eta kuantitatiboak. Departamentuek emandako erantzunetan oinarrituta, **ezarritako baldintzak betetzen dituzten proposamen guztien zerrenda**



egingo du Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza Nagusiak. Proposamen horiek kategoriaren/gaiaren arabera sailkatuta agertuko dira.

Bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa erakutsi duten **herritarren proposamen guztiak herritarrek aurrekontu parte hartzaileen prozesuaren barruan hauta ditzaketen proiektutzat** hartuko dira, eta berriro aurkeztuko dira.

8. FASEA. Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluak proiektuak behin-behinean hautatzea: **2021ko apirila.**

Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluak partaidetza prozesuen jarraipena eta ebaluazioa egingo du (aldez aurretik kontrastatutako eta Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza Nagusiak baliozkotutako adostasunak lortzera bideratutako metodologiari jarraikiz), aurrez ezarritako kategorია bakoitzeko **gehienez 3 proiektu behin-behinean hautatzeko ardura** izango du, eta hala ziurtatzen duen irizpen bat emango du.

9. FASEA. Aurrekontu Irekiak prozeduraren bidez zehazteko gordeko diren gastuen ehunekoa edo zenbatekoa eta partidak zehaztea: **2021eko apirila-maiatza.**

Gipuzkoako Foru Aldundiak Aurrekontu Irekien prozeduraren bidez zehazteko gordeko diren gastuen ehunekoa edo zenbatekoa eta partidak zehaztuko ditu, Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren Jarraibide Orokorrak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bitartez.


Aurrekontu Irekiak 2021 prozesuan hautatutako proiektuak gauzatzeko aurreikusitako gastu partida **1.100.000 eurokoa** da.

10. FASEA. Proiektuen behin betiko aukeraketa: **2021eko apirila.**

Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeak proiektuak behin betiko hautatuko ditu, Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluak proposatutako zerrendatik abiatuta, eta kasuan kasuko foru zuzendaritzekin erkatuta. Proiektuek herritarren bizi kalitatean duten eragina eta benetako irismena argiago ulertzeko:

- ✓ Proiektuak kategorien/gaien arabera ordenatuta/sailkatuta agertuko dira.
- ✓ Proiektu bakoitzaren bertsio laburtuan jasotako informazioak deskribapen labur bat eta dagokion aurrekontu zenbatespena jasoko ditu.

Proiektu bakoitzak informazio gehigarria izango du lotuta (gipuzkoa.eus webguneko dagokion atalean egongo da), formatu eta fitxa komun batean, honako eremu hauekin:



1. Proiektuaren izenburua eta proiektuaren identifikatzailea (kodea).
2. Irudi nabarmendua.
3. Kategoría/gaia.
4. Deskribapen laburra.
5. Proiektuaren helburuak.
6. Proiektuaren eragina neurtzea ahalbidetzen duten emaitza-adierazleak.
7. Espero diren onurak.
8. Kalkulatutako aurrekontua.
9. Intereseko fitxategiak (aukerakoa).
10. Irudi galeria (aukerakoa).

11. FASEA. Herritarrek proiektuak aukeratzea: **2021eko maiatza.**

Gipuzkoako Foru Aldundiak inprimaki bat bidaliko du lurraldeko helbide guztietara, frankeoa ordainduta dutela. Formularioan, hautatu daitezkeen proiektuen deskribapen labur bat jasoko da. Formularioan hasieran aurreikusitako 6 **kategoria/gai** bakoitzeko 3 proiektu agertuko dira, guztira 18 proiektu lortu arte.

Nork parte hartu ahal izango du prozesu horretan?

Prozesuan parte hartu ahal izango dute **Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta dauden 16 urtetik gorako pertsonak**, hala xedatzen baitu 5/2018 Foru Arauak, azaroaren 12koak, Herritarren Partaidetzari buruzkoak, 8. artikuluan (Parte hartzeko eskubidea).

Nola egingo da prozesua?

Parte hartzaileek hasieran aurreikusitako **6 kategoria/gai horietako bakoitzeko proiektu bat (eta bakarra)** aukeratu beharko dute **gehienez**:

- o Enplegua eta aktibazio ekonomikoa;
- o Gizarte arloa;
- o Gazteria;
- o Adinekoak;
- o Kultura-hezkuntza arloa;
- o Mugikortasun iraunkorra.

Pertsona bakoitzak behin bakarrik parte hartu ahal izango du, parte hartzeko erabilitako bidea edozein dela ere.

Pertsona batek ez baditu ematen Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta dagoela egiaztatzeko beharrezko eta eskatutako datuak, kategoria/gai bereko bi proiektu edo gehiago aukeratzen baditu edo kanal beraren edo gaitutako kanalen bitartez bitan edo gehiagotan parte hartzen badu, partaidetza baliogabetzat joko da eta ez da zenbatuko.

Herritarren partaidetzarako aurreikusitako bideak honako hauek dira:

- o **Aurrez aurreko karpak.** Herritarrek aurrez aurreko karpetan utzi ahal izango dute beren proiektuen hautaketa jasotzen duen liburuxka, horretarako prestatutako hautetsontzi batean.

Karpetan guztira 22 jardunaldi egitea planteatzen da, Gipuzkoako hainbat udalerritan. Horretarako, 2 talde beharko dira, 2 pertsonaz osatuak, 22 lanegunez zerbitzua emateko.

COVID-19ak eragindako osasun larrialdiak segurtasun neurri bereziak eta urruntze soziala eskatzen baditu, norbera babesteko ekipamenduak erabiliko dira (segurtasun protokolo zorrotzari jarraituz), eta pertsonen segurtasuna bermatzeko behar diren neurriak hartuko dira. **Osasun larrialdiko egoerak hala eskatzen badu, osasun arriskuko egoerak sor ditzaketen jarduerak eten egingo dira.**

Horrez gain, **beste 6 egunez, informazio stand bat jarriko da** Donostian jende gehien ibiltzen den eremuetan.

- o **Topaketak.** Herritarrek proiektuen hautaketa jasotzen duen liburuxka horretarako instalatutako hautetsontzi batean utzi ahal izango dute, topaketa bakoitzean gaituko den lokalean. Aldundiak azaldu ahal izango du zer prozesu egin den, zer proiektu hautatu diren eta zer proposamen baztertu diren, hainbat arrazoiengatik.

Lurraldeko eskualde bakoitzean gutxienez topaketa bat egingo da. Horiek antolatzeke, Landa Udalerrien Garapenerako Zuzendaritza Nagusiaren lankidetzak eta koordinazioa izango da. Topaketak telematikoki edo aurrez aurre egin daitezke. Topaketa horietan, prozesuaren dinamika, fase honetan hauta daitezkeen proiektuak eta parte hartzeko bideak eta prozedura azalduko dira.

COVID-19ak eragindako osasun larrialdiak segurtasun neurri bereziak eta urruntze soziala eskatzen baditu, norbera babesteko ekipamenduak erabiliko dira (segurtasun protokolo zorrotzari jarraituz), eta pertsonen segurtasuna bermatzeko behar diren neurriak hartuko dira. **Osasun larrialdiko egoerak hala eskatzen badu, osasun arriskuko egoerak sor ditzaketen jarduerak eten egingo dira.**

- o **Formulario digitala.** Herritarrek <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/partaidetza> domeinuan dagoen formulario digitalaren bidez helarazi ahal izango dute proiektuen aukeraketa.
- o **Aurrez aurrekoa.** Herritarrek aurrez aurreko formatuan entregatu ahal izango dute liburuxka beren proiektu hautatuak adierazita, Informazioko eta Herritarren Arretako bulego zentralean (Gipuzkoa plaza z/g, beheko solairua, 20004, Donostia), edo Gipuzkoako Lurralde Historikoko edozein udaletxetako sarrera erregistroa baliatuz, bestela.

12. FASEA. Azken emaitzak lortzea: **2021eko ekaina.**

- ✓ **Emaitzen txostena** argitaratzea eta itzultzea. Txosten horretan, proiektuen zerrenda ordenatu bat jasotzen da, herritarrek zenbat aldiz hautatu dituzten kontuan hartuta.

- ✓ Azken txostenean, Aurrekontu Irekien prozeduraren bidez zehazteko erreserbatuko diren gastu partiden kargura gauzatuko diren proiektuen behin betiko zerrenda jasoko da.


13. FASEA. Itzulketa prozesua: **2021eko ekaina-uztaila.**

Itzulketa prozesua parte hartzeko prozesuan parte hartu duten pertsona guztiei mezu elektroniko/gutun bat bidaliz egitea planteatzen da.

Lehenik eta behin, itzulketa prozesuaren trazabilitatea kontsultatuko da Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunean (gipuzkoa.eus). Bertan, Aurrekontu Irekiak **2021** atalaren behin betiko edukia argitaratzea aurreikusten da.

14. FASEA. Partaidetza prozesua ebaluatzea: **2021eko urria-azaroa**

- ✓ Partaidetza prozesuaren ebaluazioa, 5/2018 Foru Arauak, azaroaren 12koak, Herritarren Partaidetzari buruzkoak, **50. artikuluan** ezarritako irizpideetan oinarrituta.
- ✓ **Ondorioen txosten bat** egitea. Txosten horretan, partaidetza prozesuan ongi egindakoak eta, hala badagokio, akatsak adieraziko dira, bai eta etorkizuneko prozesuetarako egokitzat jotzen diren hobekuntza proposamenak ere.
- ✓ Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza Nagusiak **ebaluazio txostena** egingo du genero ikuspegitik, eta egindako jarduerak izan duten genero eraginaren berri eman eta ondorioak aurkeztuko dizkie Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluari eta Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeari, horrek txostenaren ondorioak eta, egoki iritziz gero, bere iritzia argitara eman ditzan.



Faseak garatzeko gutxi gorabeherako programa

	AZA.	ABE.	URT.	OTS.	MAR.	API.	MAI.	EKA.	UZT.	ABU.	IRA.	URR.	AZA.
1. FASEA. Aurrekontu Irekiak kudeatzeko lantaldea eratzea Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordearen barruan													
2. FASEA. Aurrekontu Irekiak egiteko prozesuan herritarrek parte hartzeko protokoloa diseinatzea eta onartzea													
3. FASEA. Aurrekontu Irekiak prozesuan sar daitezkeen proiektu guztiek bete behar dituzten betekizunak identifikatzea eta definitzea													
4. FASEA. Aurrekontu Irekiak protokoloa Partaidetzarako Gizarte Kontseiluari aurkeztea													
PROTKOLOA JENDAURREAN AURKEZTEA: Herritarren proposamenak jasotzea													
5. FASEA. Aurrekontu Irekiak prozesua baino lehen eta prozesuan zehar komunikazio estrategia bat diseinatu eta gauzatzea													
6. FASEA. Herritarren proposamenak jasotzea													
7. FASEA. Herritarren proposamenen bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa aztertzea													
8. FASEA. Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluak proiektuak behin-behinean hautatzea													
9. FASEA. Aurrekontu Irekiak prozeduraren bidez zehazteko gordeko diren gastuen ehunekoa edo zenbatekoa eta partidak zehaztea													
10. FASEA. Proiektuen behin betiko aukeraketa													
11. FASEA. Herritarrek proiektuak aukeratzea													
12. FASEA. Azken emaitzak lortzea													
13. FASEA. Itzulketa prozesua													
14. FASEA. Partaidetza prozesua ebaluatzea													